

Hernani Institutuak hitzaldi zikloa antolatu du gurasoentzat, kalitatea eta hezkuntzari buruz

■ Hitzaldi zikloaren helburua da seme-alaben hezkuntza kalitateak zer garrantzi duen jabetzea
■ Aurreneko hitzaldia Kontxi Mendaro adituak emango du asteazkenean, Biterin 18:00etan.

HERNANI Institutuak gurasoentzako hitzaldi zikloa hasiko du aste honetan, seme-alaben hezkuntza kalitateak zer garrantzi duen jabetzeko. Institutuak prentsa komunikatua adierazi duenez, "Hernani Institutuak jakin badaki zer garrantzitsua den kalitatezko hezkuntza ematea. Horrek gure gazteen garapen integrala ziurtatuko baitu, baita prestakuntza eta gizarteratzea ere etorkizunean" Hori horrela dela, Institutuak dio etengabe ari dela hezkuntza sistema hobetzeko bideak jartzen. Lan horren barruan,

orain dela gutxi ISO 9002 kalitate ziurtagiria lortu du Institutuak.

"Baloreen garapena eta hezkuntza kalitatea"

Gurasoei begira antolatutako hitzaldiak asteazkenean hasi (abenduaren 18an) eta ikasturte osoan izango dira. Kontxi Mendarok emango du aurreneko hitzaldia eta baloreen garapena eta hezkuntza kalitatearen gainean hitz egingo du. Mendaro Unibertsitateko irakaslea da eta aditua da familia, hezkuntza eta baloreen gaietan. □



Patxi Apeztekoa Hernani Institutuko zuzendaria.

Paroa ostegunean

EUSKAL Herriak erantzun ekimenak bi orduko lan uztea eta mobilizazioak deitu ditu ostegunerako. Ekimen horren arabera, egoera politikoa oso larria da eta Euskal Herria bera dago jokoan, Frantzia eta Espainiaren estrategiak Euskal Herria desegitea baitu azken helburua. Antolatzaileen esanetan, oinarritzko eskubiderik ez da errespetatzen eta kontra egiten diona ilegalizatu egiten da. Horrexegatik ezinbesteko ikusten dute "kalera atera eta gure eskubideak eta duintasuna defenditzea".

Paroak goiz eta arratsaldean izango dira, bi ordukoak: 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Mobilizazioak, asteazkenean, 20:00etan Gudarien plazan, eta ostegunean, 12:00etan eta 20:00etan. □

San Markos Udalarekin bilduko da Hondakinen plan integrala eztabaidatzeko

SAN MARKOSEKO Mankomunitateak eztabaida prozesua zabaldua du Hondakinen plan integralaren gainean. Bihar 11:00etan Hernaniko Udalatxean bilduko dira Mankomunitate eta Udal ordezkariak. Eztabaida prozesu honetan zuzenean herritarrekin bilera ere izango da, baina hori urtarilaren 15ean da.

Irazustak (AB) eta Rubiok (Batzarre) Iparraldetik eta Nafarroatik begiratuta aztertuko dute egoera politikoa

■ Mahai ingurua Hikak antolatu du eta Biterin izango da arratsaldeko 19:30etan ■ Bihar Arnaldo Otegi eta Joseba Egibar izango dira, eta asteazkenean Patxi Zabaleta, Genma Zabaleta eta 'Bikila'.

HIKAK antolatuta, gaurtik asteazkenean hiru mahai inguru izango dira Hernanin, euskal gatazkaren inguruan. Gaur, Richard Irazusta Abertzale Batasunako ordezkaria eta Milagros Rubio

Batzarreko kideak hitz egingo dute Biterin. Richard Irazustak Iparraldeko egoera politikoa eta sozialaz hitz egingo du: jokabide planak ikuspegi aurrerakoi batetik, eta Iparraldeko abertzaleen arteko harre-

manak eta desberdintasunak. Milagros Rubiok Nafarroako ikuspegiaren berri emango digu: Autonomia Erkidegoarekin harremanak, euskaltasun integratzaile eta ezkerrekoaren jarrerak eta abar.

Asteartean, Joseba Egibar eta Arnaldo Otegi buruz buru. Ikuituko dituzten puntu batzuk: euskal gizartearen aniztasuna, herrialdeen arteko ezberdintasunak, proposamenak eta horien bideragarritasuna. □



Gure Txoko eta Txantxangorriko sarituak, Santa Barbara elkarteak lehendakari eta juntakideekin batean.

ELKARTEARTEKO MUS TXAPELKETA

Gure Txokoren hazaina

LARUNBATEAN Santa Barbara elkarteak banatu ziren soziedadearteko mus txapelketako sariak. Elkartetako 75 lagun inguru bildu ziren eta giro ederrean joan zen afaria. Denak baino gustoraxeago egoteko motiboa zutenak Gure Txoko elkarteak bazkideak ziren, aurten benetan latza egin dute-eta. Elkartetako txapelketa irabazteaz gain, orain artean inork egin ez duena lortu du Gure Txokok: bi bikoiteak finalean sartzea. Horretaz gainera, txapelketa horretan sari berezi bat izaten da txapelketa bi aldiz segidan edo hiru aldiz irabazten duenarentzat. Eta hori ere irabazi du aurten Gure Txokok. Horri erantsi behar zaio, azken hiru urteetan finalean izan dela.

Gure Txokok ez ezik, Txantxangorri elkarteak ere meritu handiak egin ditu: elkarteak bi bikoiteak iritsi dira semifinaletar.


TXIMELETA OPARIAK
Txirrita 10- 943 55 23 95 - HERNANI


HERNANI BIDAIAK
Urbietan etorb. 6 - HERNANI
☎: 943 33 00 49 - 33 01 74
e-mail: hernanib@teletel.es
Hernanitik munduko leku guztietara iristen lagunduko dizugu.


Xarobe
DELICATESSEN
SINCE 1983
Produktu Bereziak
Nagusia 17 • 20120 HERNANI
☎ 943 55 21 27
POSTA ELEKTRONIKOA: xarobe@euskalnet.net

CATALANA OCCIDENTE  Aseguruak
Bautista Biurarena
Etxegoien
Kardaberaz 40 - Behea
Tel. 943 33 24 40
Faxa 943 556602
Mobila 610 29 27 01
20120 HERNANI


LAN AHOLKULARITZA
FISKALA
KONTABLEA

Atzieta 51 Behea - 20.120 HERNANI
Tel: 943 55 02 54- Faxa: 943 33 58 01

